

## 2020ko ekainak 28, LGTBI+ Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Eguna

### 28 de junio de 2020, Día Internacional de los Derechos de las Personas LGTBI+



Adierazpen instituzionala	Declaración institucional
<p>Berrogeita hamaika urte igaro dira Stonewalleko erreboltatik, poliziaren gehiegikerien aurka lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak altxatu zirenetik. Berrogeita bat urte, berriz, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuenetik, Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Orduz geroztik, eta gaur arte, sexualitatea eta generoa modu askean bizitzeko aldarriak ez dute etenik izan.</p>	<p>Han pasado cincuenta y uno años desde la revuelta de Stonewall, cuando lesbianas, gays, transexuales y, sobre todo, travestis se alzaron contra el abuso policial. Y cuarenta y uno años desde que Antonio Vicente Santa María (Francis) fue asesinado por un policía en una discoteca de Errenteria por ser travesti. Desde entonces, y hasta la actualidad, el clamor por vivir la sexualidad y el género de forma libre no ha cesado.</p>
<p>Urteotan, Euskal Herrian eta inguruko beste herrialde batzuetan ere, LGTBI+ eskubideetan aurrerapausoak eman direla ikusi ahal izan dugu; tartean daude sexu berdina duten pertsonen arteko ezkontzen legeztatzea, adoptatzeko eskubidea, tarteko. Baina asko dago egiteko oraindik. Bazterkeria, estigmatizazioa eta indarkeria eguneroko errealitate baitira, gaur gaurkoz, LGTBI herritar askorentzat, hala Euskal Herrian, nola munduan. Zorritzarez, aurreiritziak, uste faltsuak, estereotipoak, bazterketa eta gorrotoa oraindik ere jendarteko sektore askotan sakon errotuta daude.</p>	<p>Durante estos años, hemos podido observar que, tanto en Euskal Herria como en otros países circundantes, se han producido avances en cuanto a los derechos LGTBI+, entre los que destacan la legalización de los matrimonios entre personas del mismo sexo y el derecho de adopción. Sin embargo, todavía hay mucho por hacer. Tanto en Euskal Herria, como en el mundo, a día de hoy la exclusión, la estigmatización y la violencia son realidades cotidianas para la comunidad LGTBI. Por desgracia, los prejuicios, las falsas creencias, los estereotipos, la exclusión y el odio están todavía profundamente arraigados en los diferentes sectores de la sociedad.</p>
<p>Hortaz, maiz, LGTBI+ kolektiboen eskubide horiek eskuratu diren lurraldeetan, jendarte parekide batean bizi garen uste ustela sortu da, eta ondorioz, asko dira LGTBI+ eskubideak eskuratzearen aldeko defentsa alboratzen dutenak, hain zuzen egin</p>	<p>Por tanto, a menudo, en los países donde se han reconocido los derechos del colectivo LGTBI+, se ha generado la falsa creencia de que vivimos en una sociedad igualitaria y, producto de ello, muchos de esos países abandonan la defensa en favor</p>

<p>beharrekoak eginak daudelakoan.</p> <p>Baina gaurko egunean badaude arrazoiak borrokan jarraitzeko, zeren lesbo-homo-trans-bifobia indartsu baitabil hainbat esparru ideologikotan, bai eta jendartearen parte batean ere. Eta horrekin batera gainerako herritarrek dituzten eskubide berdinak eskuratzeko urratsak oraindik emateko daudelako.</p> <p>Ezohiko egoera dela eta, azkenaldian, LGTBI+ kolektibotik hainbat salaketa egin dira konfinamenduak kolektiboan izan dituen ondorio ezkorak direla eta, bereziki azpimarratu da euren familien babesik ez duten nerabeen errealitatea. Nerabe eta gazteek, gaur egun, oraindik, haien izaera sexuala larritasunez bizi dute askotan, gizartean zein euren inguru hurbilean (familia, ikaskideak...) etengabe azaleratzen diren jarrera diskriminatzaile eta iraingarrien ondorioz.</p> <p>Horregatik guztiagatik, Covid19 ondorenean, jazotako egoera horiek identifikatu eta jazarpenaren aurkako neurriak jartzeaz gain, instituzio publikook, tartean Pasaiaiko Udalak konpromisoa hartzen dugu LGTBI+ komunitate osoaren ongizatea ziurtatzeko, dagokigun esparruan, tresnak sortzen jarraitzea eta aniztasuna sustatzea gizarte-balio gisa, eta gazteen artean, bereziki, parte-hartzea eta elkartegintza bultzatzea.</p> <p>Beraz, ekainaren 28ko egun honetan, Pasaiaiko Udalean argi dugu borroka bizirik mantentzen dela, arrazoiak soberan daudela lesbiana, homosexual, transexual eta bisexualen herritar eskubideak aldarrikatzen jarraitzeko.</p>	<p>de la consecución de los derechos LGTBI+, persuadidos de que todo lo que debía hacerse ya está hecho.</p> <p>Pero en la actualidad hay muchas cosas por las que luchar, porque la lesbo-homo-trans-bifobia se ha fortalecido en diversos ámbitos ideológicos y también en parte de la sociedad. Y porque aún están por dar los pasos mediante los cuales podamos gozar de los mismos derechos que el resto de la ciudadanía.</p> <p>En esa situación extraordinaria, desde el colectivo LGTBI+ últimamente se han realizado varias denuncias debido a las consecuencias negativas que ha generado el confinamiento en el colectivo, y especialmente se ha hecho hincapié en la realidad de las y los adolescentes que no cuentan con el amparo de sus familias. En la actualidad, adolescentes y jóvenes viven su condición sexual con angustia en muchas ocasiones, tanto en la sociedad como en su entorno cercano (familia, compañeros/as de estudios...), a consecuencia de las actitudes discriminatorias y vejatorias que constantemente se manifiestan.</p> <p>Por todo ello, tras la Covid-19, además de proceder a la identificación de esas situaciones acaecidas y de adoptar medidas en contra del acoso, las instituciones públicas, entre ellas el Ayuntamiento de Pasaia, se comprometen a garantizar el bienestar de toda la comunidad LGTBI+, cada cual en su ámbito, y a adoptar medidas contundentes y promover la diversidad como un valor social; y a impulsar la participación y el asociacionismo, principalmente entre la juventud.</p> <p>En este 28 de junio en el Ayuntamiento de Pasaia tenemos claro que la lucha continúa, que hay razones de sobra para seguir reclamando los derechos ciudadanos de lesbianas, homosexuales, transexuales y bisexuales.</p>
--	--

<p>Horregatik, aniztasun afektibo-sexualaren aldeko borroka, guztiona eta egunerokoa denez gero, Pasaia Udalak babestu egiten ditu egun honen kariatara antolatutako ekimenak eta dei egiten die herritarrei LGTBI+ mugimenduak eta mugimendu feministak deitutako ekintzetan parte hartzera. Pasaia Udalak San Pedroko eta Trintxerpeko alkateordetzetan jarriko du LGTBI+ komunitatea sinbolizatzen duen bandera.</p>	<p>Y entendiendo que la lucha por la diversidad afectiva sexual es de todas y todos nosotros, el Ayuntamiento de Pasaia apoyará las iniciativas que se organicen para este día, y, llama a la ciudadanía a participar en las acciones convocadas por el movimiento LGTBI+ y el movimiento feminista. El Ayuntamiento de Pasaia colocará la bandera con los colores que simbolizan a la comunidad LGTBI+ en las tenencias de alcaldía de San Pedro y Trintxerpe.</p>
---	---